

# Eusko Ikaskuntzako lehen kongresuko «irakaskuntza» arloko ekarpenak

Begoña Bilbao, Karmele Perez, Gurutze Ezkurdia

UPV/EHU

[begona.bilbaobilbao@ehu.eus](mailto:begona.bilbaobilbao@ehu.eus), [karmele.perezu@ehu.eus](mailto:karmele.perezu@ehu.eus), [gurutze.ezkurdia@ehu.eus](mailto:gurutze.ezkurdia@ehu.eus)

## Abstract

The first conference of Eusko Ikaskuntza was held in Oñati in 1918. In the centenary of this celebration, from the point of view of education, we want to highlight that one in the congress conditioned a great deal some basque educational projects, such as rural schools in Biscay, educational material made in basque and basque teachers profil design. These congress was the crucible to legitimize pedagogical innovations in basque. Politicians, thinkers and educators of great strength spoke at the congress and analyzed the situation of teaching. In addition to the diagnosis, they proposed some solutions. There were four speakers, three men and one woman. This year, in which the woman has had a great international impact, we want to emphasize that Adelina Mendez de la Torre was the only female speaker who, along with 65 other women, took part in the congress. These congressistas of Oñate were founding members of Eusko Ikaskuntza, because these association was constituted in that congress.

## Laburpena

Eusko Ikaskuntzako lehen kongresua Oñatin egin zen 1918an. Aurten ospakizun horren ehun urte bete direla, hezkuntzaren ikuspuntutik begiratuta kongresuan esandakoak euskaltzaleen egitasmo asko baldintzatu zituen, hala nola, Bizkaiko auzo-eskolak, ikasmateriala eta euskal maisu-maistren izaera. Kongresua arroagoa izan zen berrikuntza pedagogiko batzuk legitimizatzeko. Garaiko euskal irakaskuntzan egoeraren azterketari egin zitzaion kongresuan, punta puntako politikari, pentsalari eta hezitzaileen ekarpenak plazaratuz. Irakaskuntzaren diagnosiaz batera hizlariak soluziobideak ere proposatu zituzten. Guztira lau ekarpen egin ziren, hiru gizonezko eta emakumezko batek eginak. Aurten emakumeari nazioarteko sekulako protagonismoa eman zaiola, goraiatzekoa da Adelina Mendez de la Torre emakume hizlari bakarra izatea zein kongresisten artean beste 65 emakumek parte hartu izana. Oñatiko kongresistak Eusko Ikaskuntzako bazkide fundatzaileak izan ziren, horrela gauzatu baitzen Elkartea.

**Keywords:** teaching, Basque Country, bilingualism, new school, woman

**Gako hitzak:** irakasuntza, Euskal Herria, elebitasuna, eskola berria, emakume

## 1. Egoera soziopolitiko eta kulturala

Hego Euskal Herritik begiratuta, XIX. mendearen hasieran, Cádiz-ko Gorteetan 1812ko Konstituzioan hezkuntzaren zeregina idatzirik agertzen denetik aurrera, liberalak eta kontserbadoreak eskola-gaia gizarte-eztabaida dute, ziklikoki. Hala ere, biak bat datoz, 1857ko Moyano-ren legean. Moyano-ren Lege honek ezarri zion hezkuntza-administrazioari egitura zentralizatua, ia XX. mende osoan zehar iraun duena, hain zuzen. Batetik, ikasmaila bakoitzeko irakasleriaren ordenamendua ezarri zuen (irakaskuntza publikoan oposaketa bidezko hautaketa-sistema) eta bestetik, ikastegi publikoen gobernu organoak definitu zituen (Juntas Locales, lehen hezkuntzan, Juntas Provinciales, eta, unibertsitate barrutietan, Erretorea). Hizkuntzari

dagokionez, gaztelania ezartzen da derrigorrez, zentralismoari kohesioa emateko. Gaztelaniari eman zitzaion garrantzia sekulakoa zen, ikasleriaren eta gizarte osoaren homogeneotasunari begira. Sortu berria zen espainiar Estatu-nazioaren batasuna lortzeko, horrekiko identifikazioa sustatzeko eta balore eta ideia politiko horietan ikasleak hezteko. Ikasleak balio berrietan gizarteratzeko, gaztelania ezinbesteko tresna bihurtu zen, nortasun kolektiboa eraikitzeke zutaberik garrantzizkoenatariko bat, alegia. Hortik aurrera, euskara irakaskuntzatik errotik ezabaturik gelditu zen 1970eko OHOkoko legea indarrean jarri arte. Geroztik ere, euskal gizarteak makina bat lan egin behar izan zuen hezkuntza euskaraz emateko.

Foruaren galerak ez zuen egoera hoberik ekarri. 1876ko foru abolizioak Euskal Herriari maisu-maistrak

izendatzeko ahalmenaren galera ekarri zuen. Harrezkero, oposaketa-sistemak eta irakasleria erdaldunak botere zentralak bere alde erabilitako tresnak izan ziren. Hala ere, 1876. urtetik aldarrikatzen da euskal nortasuna entitate politiko-ekonomiko handiagoetan gauzatu nahia. Garai honetan Euskal Herria biziki aldatzen da. Mugimendu demografikoa, hirigintza, ekonomia, nekazari-munduaren ondoan merkataritza eta industriako sektoreak ari dira indartzen. Industrializazioa indarrean garatzen da, hasieran, batez ere, Bizkaian eta gero Gipuzkoan eta, berarekin batera dakarren inmigrazioa basatia, kontrolik gabekoa da. Komunikabideen aroan sartzen gara, ia denak erdaraz, eta oso politizatuak. Eskolak eta unibertsitateak mundu berri honetarako prestatu behar dute gaztea. Soldadutzara ere joan egin behar da une horretan, obligazioz. Ondorioz, euskal nortasuna, euskal ezaugarriak definitzen eta defendatzen arituko dira euskaltzaleak. 1876an euskal foruak abolitzean sortzen den mugimendu abertzale eta euskaltzaleak betidaniko helduleku politiko eta kulturalak huts egiten duela ikusten du. Hala ere, foruzaletasuna ez da hiltzen horregatik, alderantziz baizik.

Joera foruzalea eta autonomizalea areagotu egiten dira eta, bide beretik, honi euskariak eman nahian edo, Euskal Herriaren historia, kultura, hizkuntza berreskuratzeko behar intelektual eta politikoa sentitzen da. Hortaz, euskal izaera sustatzeari ekiten dio mugimendu berri honek. Ekimen horretan nabarmentzen den intelligentsiak baditu ezaugarri komun batzuk (Torrealdai, 1997: 100): "laikoak dira, hiri eta hiriburuetan bizi dira, kulturaz jantziak dira, elkarrekin, plataformak eta aldizkariak sortzen dituzte, eta, aspaldiko tradizioari lotuz, erdaraz gehien bat defendatzen dute Euskal Herria eta euskara". Torrealdai (1997:101) jarraituta laburbiltzen dugu orduko egoera. Jeltzaleak nagusitzen dira Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Aldundietan, eta hurrengo urtean, Gorteetako diputatu-hauteskundeetan zazpi diputatu nazionalistak dira, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa bat eginda daudelako. Agintariek euskal kulturaren aldeko erabaki garrantzitsu batzuk hartzen dituzte. Bizkaia da horretan aitzindaria, 1917an, Ramon de la Sota Diputatu Nagusi izanik, zenbait proiektu gizareratzaren baitira, horiek egiteko beharrezko neurriak hartuz. Ordukoak dira, sortzen duten "Junta de Cultura Vizcaina" eta "Junta de Instrucción Pública". Ekimen bi horiei esker eta horien eraginpean handik lasterrera, auzo-eskolak indarrean jartzen dira Bizkaian. Ingurune horretatik abiatzen da Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, etab. sortzeko ideia eta, azkenik, 1918ko Oñatiko Kongresuan Eusko Ikaskuntza sortzen da.

## 2. Eusko Ikaskuntzako I. Kongresua


Ehun urte joan direnean Euskal Ikaskuntzen gaineko lehen kongresua antolatu zenetik, gogora ekarri nahi dugu "Irakaskuntza" atalean plazaratu zena. Han adostutako ekarpenak garrantzizkoak dira gaur ere, lehen hezkuntzari zein maisu-maistren prestakuntzari

dagokionean. Eusko Ikaskuntzak antolatu zuen Lehenengo kongresuan Adelina Mendez de la Torre izan zen 50 hizlarien arteko emakume bakarra. Oñatiko kongresu hartan askotariko gaiak aztertu ziren, hurrengo zazpi ataletan bilduta: Zientzia politiko eta sozialak, Arraza, Hizkuntza, Historia, Artea, Irakaskuntza eta Eusko Ikaskuntza edo Euskal ikasketak. Kongresua Oñatiko Sancti-Spíritus Unibertsitatean egin zen eta 900 kongresista batu ziren.

"1918ko abenduaren 22an sortu bazen ere ofizialki erakundea, irailan izan zen Eusko Ikaskuntzaren lehenengo biltzarra. Iruñako, Baionako eta Gasteizko gotzainek eta lau euskal Aldundietako lehendakariak osatutako Patronatuko Batzordeak antolatutako biltzarrak astebeteko iraupena izan zuen, Alfonso XIII. erregea ere bertan izan zen. 1918ko irailaren 1etik 8ra bitartean, euskal kultura hedatu, ikertu eta Euskal Herriko hainbat arazorentzako irtenbideak topatzeko abiapuntuak ezarri nahian aritu ziren" (Eusko Ikaskuntza web). Gizartearen beharrianak jaso zituen intelektual eta pertsona eraginkorrak osatutako taldeak, euskal ikuspegitik begiratuta gabeziei erantzun nahian, eta hala erabaki zuten: "Erakunde zientifiko-kulturalaren helburua euskal kultura garatzeko tresna egonkorra eta iraunkorra izatea zen" (Eusko Ikaskuntza web).

## 3. Irakaskuntza: Kongresuko gai nagusia

Oñatiko kongresu hartan askotariko gaiak aztertu ziren, hurrengo zazpi ataletan bildu zirenak: Zientzia politiko eta sozialak, Arraza, Hizkuntza, Historia, Artea, Irakaskuntza eta Eusko Ikaskuntzak. Atal bakoitzean hitzaldi orokorra eta ikastaldiak egin ziren. Atalaren lana amaitzeko ondorioak idazten ziren, zeintzuetan islatzen zen han aztertutakoen prospektiba.



1. Irudia: Oñatiko Kongresuaren Agiri-liburua

Kongresua egiteko plan osoa onartuta zegoenean, atal bakoitzean arituko zirenak izendatzeko taldea eratu zen, Aldundi bakoitzeko kideak osatua. Nafarroatik Juan Jose de Juan Martiñena, Gipuzkoatik Julian Elorza Aizpuru, Arabatik Lorenzo Zarandona eta Bizkaitik Felix Landaburu. Batzorde honek erabaki zuen, maiatzean bilduta, atalak nola antolatu eta nortzuk izango ziren hizlari. Irakaskuntzari dagokion atalean Luis Eleizalde, Eduardo Landeta, Leoncio Urabayen, eta Adelina Méndez de la Torre izan ziren ponenteak. Julian Elorzak, Gipuzkoako diputatua eta kongresua antolatzen zuen taldeko buru zenak aurkezpena egin ondoren, Luis Eleizaldek “Irakaskuntzaren arazoak Euskal Herrian” azaldu zuen; Eduardo Landeta “Eskolaren egoeraz” mintzatu zen; Leoncio Urabayen “Euskal eskolako irakaslea” mintzagai hartu eta maisu-maistren prestakuntzaz aritu zen, arazoak eta erremedioak azalduz. Honela planteatu zen irakaskuntzari dagokiona.

**ENSEÑANZA. Conferencia:** *El problema de la educación en relación con el País Vasco:* Importancia de la educación en general.—La que le dan los países más adelantados.—La indiferencia de los vascos ante estas cuestiones, y su consecuencia.—El remedio, por Luis de Eleizalde.

**Cursillos:** *Estado actual de la escuela en el País Vasco: sus remedios inmediatos y organización de la escuela vasca de conformidad con las condiciones locales,* dos lecciones, Eduardo de Landeta.

*El maestro de la escuela vasca.—Medios para formarlo dentro del régimen actual,* dos lecciones, Leoncio de Urabayen.

*La nueva escuela primaria en el País Vasco,* dos lecciones, Adelina Méndez de la Torre.

**Secciones:** Cooperación de la familia en la labor de la escuela. Obtención de libros y material euskéricos para la enseñanza. Creación de un organismo técnico que tenga a su cargo la orientación general de la educación en el País Vasco y su relación con las Diputaciones y Ayuntamientos.

Edificios.—Museos.—Bibliotecas ambulantes.—Talleres profesionales.—Clases de adultos en el campo.—Centro de estudios.

Estudio de la Geografía y de la naturaleza del País Vasco.

Bibliografía y Biblioteca vasca.—La Universidad.

## 2. Irudia: Irakaskuntza arloko hitzaldi, ikastaro eta azpiatalen banaketa (EI, 1919: 14)

1. Irudian ikus daiteke, irakaskuntzaren ataleko hitzaldi nagusia egitea Luis Eleizalderi egokitu zitzaioela. Hitzaldi nagusian hezkuntzaren egoera aztertu zuen Eleizaldek, Euskal Herriko egoera. Hezkuntzaren garrantziak mintzatu ostean, herri aurreratuetakoko egoera plazaratu zuen, herri horiek hezkuntzari ematen dioten garrantzia azpimarratuz. Euskaldunok kontu honetaz dugun axolagabetasuna mahairatu ostean, egoerari erremedioa jartzeko bidez mintzatu zen. Luis Eleizalde bergararrak, Madrilen zientzietan lizentziatua, matematikako katedra lortu zuen Gasteizko institutuan. Bizkaiko Foru Aldundiak hezkuntzako ikuskari

izendatuta, Oñatiko kongresuan parte hartuz gainera, Euzkadi aldizkaria zuzendu zuen, Euskaltzaindiako kide ere izendatu zuten (Auñamendi).

Landetak bestalde, ikasgai bitan aztertu zuen Euskal Herriko eskolaren egoera, planteatuz nola antolatu zitekeen lekuan lekuko baldintzen arabera eskolaren antolamendua. Eduardo Landeta Aburto bilbotar ekonomialariak hurrengo kongresuetan ere parte hartu zuen, Iruñakoan egungo eskolak bizitzako errealitatera jo behar duela aldarrikatuz, jarduten duen ingurunearen arabera. Gerora, 1922an, Gernikan elebitasunaz aritu zen. Leoncio Urabayenekin batera irakaskuntza arloko bokala eta Eusko Ikaskuntzako Batzorde iraunkorreko kidea izan zen.

Leoncio Urabayen euskal eskolako irakasleaz aritu zen, une horretan ezaugarri horietako irakasleak formatzeko zeuden baliabideak aztertuz. Urabayenek magisteritza ikasketak hasi zituen 1903an, era berean musika eta arte grafikoak ikasiz. Urte batzuetan Aldundian lanean ibilita, Goi mailako irakasletza ikasteko aukera irabazi zuen oposaketaz. Ostean Burgoseko Eskola Normalean Historia irakasle ibili zen, harik eta Iruñako Eskolara etorri arte Gramatika eta Literatura irakasle. Iruñako Eskolako zuzendaria izan zen eta Oñatiko kongresuko idazkaria. Eusko Ikaskuntza elkartearen sortzaile eta irakasletza arloko bokala ere bazen, abiatu zenetik 1923ra arte.

Adelina Méndez de la Torre Bilboko La Concha eskoletako zuzendaria Eskola Berriaz mintzatu zuen, irailaren 6 eta 7an eman zituen ikastaroetan. Asturiasen jaioa eta Madrileko Normalean ikasitakoa, 1897an Bilboko 7. barrutiko eskolako ardura hartu zuen oposaketaz. Bertan jardun zuen 1937an kargutik kendu zuten arte.

## 4. Garaiko irakaskuntzaren egoera

Irakaskuntza ataleko lau hizlarietako garaiko irakaskuntzaren egoera argitu zuten eta aurrerantzean jorratu beharreko ildo nagusiak adierazi zituzten irakaskuntzaren ikuspegi desberdinetatik begiratuta.

### 4.1. Eleizalde, Landeta, Urabayen eta Méndez de la Torre hizlari kongresuan

Irakaskuntza arloko hitzaldi nagusia 1918ko irailaren 4an eman zuen Eleizaldek, Euskal Herriaren Alde Aldizkarian datorrenez honela abiatu zen: “helburu komunak bildu gaitu hiri eder eta historiko honetan: gure herrialdeko zerbitzura jar daitezkeen baliabide praktikoko eta eraginkorrenak bilatzeko nahia, euskal bizitza gailur gorenera goratzeko nahi noblea” (EA, 1918: 171).



3. Irudia: Luis Eleizalde (Arg. Estornes, 1983: 41)

Azpimarratu zuen hezkuntzaren arazoak, beste hiruzpalaurekin batera, munduko pentsalari ilustratuen arreta xurgatzen zuela. Arazo handia zela nonahi, eta hemen, Euskal Herrian, une hartan konpondu beharreko arazoa zela. Uste zuenez, bateratze politikoaren falta zein herri honetan egoera gorabeheratsuak izatea, ia etengabe, ziren nahiko arrazoi hezkuntzarekiko arreta eskasa izateko hemen. Irlanda, Polonia edo Bohemia jarri zituen adibide azalpenetan, beste herri batzuetan egin zutena lortzeko bertako hizkuntza zerabilen eskola zein Unibertsitatea ezinbesteko ikusi baizuten herri horietan. Hemengo egoerara etorrira, arazorik handiena euskaldunek zutela zioen, euskal elebakarrak “lo más puro y característico de nuestra raza, que seguramente no baja de un millón de almas” (op. cit. 174). Horretaz gainera, Estatuaren dekretua zentzugabea zela baieztatu zuen, Bizkaia, Nafarroa eta Gipuzkoako herrietako irakaskuntza gaztelaniaz izan behar zuela agintzen zuen eta, “la enseñanza sea castellana o no sea” (EA, 1918: 174). Aginduaren izaera politikoari barik, izaera pedagogiari begirata, bere protesta azaldu zuen “contra esta disposición en nombre de la humanidad, del sentido común y de la cultura” (EA, 1918: 174). Lehen hezkuntzan geneukan korapilo estua askatu edo moztu beharra eskatzen zuen arren, askatzeko modurik ez zuela ikusten zioen. Bide bakarra zela genuenarekin moztea, guk geuk behar genituen eskolak antolatuz.

Luis Eleizaldek unibertsitatearen beharrezina aldarrikatzen du, unibertsitatea hezkuntza sistemaren gakoa edo giltza delako eta indar indibidualak bildu eta koordinatuko dituen instituzioa delako.

Landetak, bestalde, eskolei dagokionean, Bizkaia ondo hornituta dagoela dio, 700 eskola inguru baitaude nazionalak, municipalak eta pribatuak kontatuta. Ikasleak 46.334 dira 1910eko erroldaren arabera. Eskolarako diruaz bestalde, estatuak 268.000 pezeta jartzen dituen bitartean Bizkaiak 1.300.000 pezeta jartzen dituela dio. Argitzen du, eskolarako interes handia izateak eraikuntza ederrak eta, gehienetan,

baldintza higieniko egokietan egotea ekarri duela. Aparteko aipamena egiten die Bilboko eskolei, izan ere dituen 102.000 biztanleentzako, neskentzako 63 eskola daude, 61 mutilentzat eta 41 Haur Eskola. Guztira 7.350 ume dabilta eskolara Bilbon. Eskolak ondo hornituta daudela dio, eta eraikuntzak beste edonongoak baino hobek direla.



4. Irudia: Eduardo Landeta (Arg. Estornes, 1983: 36)

Bestelako adierazpenak egiten ditu irakasle faltagatik, “desde setiembre de 1913 hasta agosto de 1917 fueron 199 las escuelas que sufrieron vacantes o interinidades” (EI 1919: 884), horren errua Instrukzio Publikoko Ministerioari egokituz. Falta direla dio irteerak –eskolatik kanpora-, hezkuntza fisikoari garrantzia ematea, askatasunean heztea edo irakaskuntza memoristikotik harago joatea, behar delako eskolan “se formen hábitos intelectuales, de observación, de crítica y originalidad de pensamiento” (EI 1919: 885). Irakurketa metodoak, idaztekoak, aritmetika eta geometria irakasteko moduak edo musika eta artea lantzekoak gogor kritikatzin ditu, batzuk guztiz memoristikotik direlako eta beste batzuk irakasten ez direlako. Horretaz gainera, Bizkaian hizkuntza ere arazo dela dio, hemen ez da nahikoa eskolak eta maisu-maistrak izatea, “A nosotros nos precisa que estos maestros estén capacitados para esparcir a manos llenas en su propia lengua, entre los niños euskaldunes por tener a ello un derecho natural, los beneficios de la enseñanza, y realizar de este modo una obra que resulte eficaz para su pueblo” (EI 1919: 889).

Eskolatik urrun bizi diren umeen arazoa planteatzen du ostean, ezinezkoa egiten zaiela eskolara joatea neguan. Landetak Aldundien arteko akordioa eskatu zuen, eskolak eraikitzeko eta ikaslearen ibilbide akademikoa antolatzeko. Irakasleen prestakuntza akademikoari dagokionean, euskara eta euskarazko irakaskuntza antolatu beharra aldarrikatuz, Bizkaiko Aldundiari maisu-maistra euskaldunak prestatzeko eskatu zion.

Leoncio Urabayenek maisuak eta maistrak herria maitatzea ezinbesteko ikusten du; maitasun aktiboa, bizia, etorkizunaz arduratzera eramango dituen esan nahi da, ume eta gazteak diren-direnean errespetatuz garapen maila handia, onena lortzeko lagunduko diena. Besteak beste, Euskal Herriko eskoletako irakaslearen prestakuntzak nolakoa izan behar duen ere definitu zuen. Irakasleak pertsona unibertsala izan behar duela dio, ikasleak ere izateko aukera zabalduz. Horretaz gainera, maisu-maistrak formakuntza pedagogiko sakona izatea aldarrikatzen du, euskal errealitatearen ezagutzaz osatuko dena. Urabayenen ustez garrantzia handia dauka irakaslearen erosotasuna; Danimarka darabil adibide azpimarratzeko ezinbestekoa dela ondo ordaindua izatea zein bizitza eroso izatea dagoen herrian. Modu bakarra da irakasleen joan-etorria saihesteko.



5. Irudia: Leoncio Urabayen (Arg. Estornes, 1983: 39)

Urabayen, Iruñako Magisteritza Eskolako irakasle zenaren hitzetan, Barcelonan eta Geronan 1915ean eta 1917an sortutako katalanaren katedrak eredutzat hartu behar dira eta hemengo maisu-maistren eskoletan euskarazko katedrak abiarazi, irakasle euskaldunak behar dira eta.

Adelina Méndez de la Torrek “Lehen Hezkuntza berria Euskal Herrian” gaia irakasgai bitan banatuz, Euskal Herriak zituen oinarriko bi beharrian identifikatu zituen. Lehenengo irakasgai bere ezaugarriak, Euskal Herriarenak, finkatzeko beharrezana agertu zuen, denboraren eraginez eta historiagatik ahulduta baitzeuden. Bigarrenean kultura zientifikoaren goragoko maila aldarrikatu zuen, garapen industrialak zein merkataritzarenak beharrezko duena. Beharrian biak hain daude lehen hezkuntzako eskolarekin lotuta ze, ezinezkoa da beharrianok betetzea edo kitatzea eskolaren laguntza barik. Baieztatzen du, bestalde, Euskal Herriko eskolak ez diola begiratzen aurrekari etnikoari, ez historikoari; ez dituela asebetetzen uneko beharrianak, eta gutxiago etorkizuneko idealak. Bigarren atalean ageri da bere ekarpena, non eskatzen


duen eskola bertoko izaeraren arabera izatea. Horrela azaltzen ditu eskolak izan behar dituen hiru ezaugarriak: euskaraduna, berria eta herriarena.



6. Irudia: Adelina Méndez de la Torre (Arg. *El Nervión*, 1913-XI-23)

#### 4.1.1. Eskola: euskaraduna, berria eta herriarena

Adelina Méndez de la Torrek bere pentsamendu pedagogikoaren sintesia egiten du bere ekarpenean; eskola berri behar aldarrikatzen du, elebiduna eta edukatiboa izan behar duela, ezinbestean.



7. Irudia: Adelina Méndez de la Torre hitaldia (EI 1919: 920)

Nola izango da euskaraduna. Irakasleak euskaldunak izatea ezinbestekoa da, umea euskalduna den kasuan zein ez denean. Dioena da “si el niño habla euskera, el maestro será euskaldun para que siga hablándolo. Si el

niño no habla euskera, el maestro será euskeldun para que lo hable” (EI 1919: 935). Eta gaineratzen du, eskolan ume euskaldun zein ez direnak daudenean ere irakasleak eukaldunak izan behar duela, azken ume horrek bizi den lekuko informazio egokia jaso behar duelako eta lehenengoak ere lekuan lekuko ezagutza aberastuko duelako, horretara, ezagutza hurbil horiek bertan behera geratzeko arriskua gaindituz. Arrazoi historikoak eta kulturalak dira oinarria euskarazko eskola aldarrikatzeko.

Nola izango da berria. Eskola berria izango da jartzen zaion xedearen arabera, jomuga eta hezkuntzarako prozedurak argiak direnean. Berria izango da jarriko zaion xede edukatiboagatik –ez instruktibo-. Berria izango da erabiliko dituen prozeduragatik eta, batez ere, izango dituen irakasleek umearekin lan egiten jakingo dutelako. Ikaslearekin lan egiten dakien irakaslea behar da eta errealitatea ezagutzen duena. Beraz, ezinbestekoa litzateke bertoko hizkuntza, geografia eta historia etxekotzat hartzea. Gogor kritikatzan ditu irakaslearen prestakuntza falta eta metodologia zaharrak, “hay una laguna inmensa entre el pensar escolar y el pensar fuera de la Escuela” (EI 1919: 936).

Nola izango da herriarena. “Si las escuelas han de tener unidad, condición indispensable para que con verdad se las pueda llamar escuelas de un País, precisa éste fijar concretamente en cantidad y calidad que instrucción media considera suficiente para sus necesidades presentes y futuras” (EI 1919: 937). Probintzia eta munizipioek izango dira Euskal Herriko eskolatarako oinarrizko programa adostuko dutenak, eta baita betetzeko ardura hartuko dutenak ere, danok derrigortzen gaituen heinean.

Eta amaitzen du esanaz, “Guzti hau lortuta, ez arduratu, mundua konkistatzera joan daiteke. Eta euskaraz egingo du” (EI 1919: 938).

Mendez de la Torre, Europako esperientzietan oinarrituta, eskolak izaera hirukoitza izan behar duela azaltzen du, euskaraduna, berria eta herriarena. Baina, bere ustez, horrela gerta dadin adostasuna bilatu behar da, eskola programak jasoko dituen edukien kantitatea eta kalitatearen gaineko adostasuna. Horregatik, hori guztiori bideratzeko autonomia municipalak proposatzen du.

Maistra hau jantzia zen, intelektualki eta akademikoki. Normaleko irakaslea izateko Madrilen egin zituen ikasketak eta 1893an titulua lortu zuen bikain notaz. Lau urte beranduago, lehen hezkuntzako maistra izateko oposaketak gainditu ondoren, Bilboko udal eskolan hartu zuen plaza, Indautxu auzoko La Concha izeneko ikastetxean. Eskola horretako maistra eta zuzendaria izan zen 1905etik 1922ra bitartean. Handik aurrera Bilboko Magisterio Eskolako Praktiketako zuzendari izendatu zuten, baina depurazio espediente batek irakaskuntzatik apartatu zuen erretreta prozesura erabiliz.

Maistra zegoen bitartean Europako joera berritzaileak ezagutzeko parada izan zuen, atzerrira joateko bi aldiz bekatuta egon baitzen. Lehenengoz, Bilboko udalak emandako diru laguntzaz 1903ko udan, hilabeteko egonaldia egin zuen Italian. Bigarren beka, berriz, 1908an lortu zuen Madrilgo JAEri esker. Bost hilabeteko egonaldia egin zuen Milan, Ginebra eta Pariseko punta-puntako ikastetxeak bisitatuz. Ikusitakoan gaineko gogoetak idatzi zituen eta Pedagogia Esperimentala ikasteko aukera izan zuen. Europako eskoletan ezagutu zituen esperientziak bere Bilboko udal eskolan jarri zituen praktikan eta aldizkari pedagogiko zein orduko egunkarietan hezkuntzaz idatzi zuen sarri. Ikasgelan erabiltzeko ikasmateriala sortu zuen eta zenbait esperientza berritzaleren bultzatzailea izan zen, hala nola, Bizkaiko umeentzako uda ikastaroak eta Bilboko La Conchako jantokia.

Adelina Mendez de la Torre ondo ezagutzen zuen hemengo historia, bereziki, Bizkaikoa. 1900an ikasleentzako irakurketa lantzeko historia liburu bat idatzi zuen “Biblioteca Instructiva. Historia, Provincias Vascongadas” izenekoa. Argi zuen, herri gisa ikasleek euren historia eta geografia ezagutu behar zitzutela. Bertoko ezagutza horiek ez lantzeak ikasleak euren errealitatek urruntzea zekarren eta ez zion mesederik egiten ikaslearen ikaskuntzari. Gabezi hori nabarmentzen zuen Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietan. Horregatik, 1918ko Kongresuan eman zituen bi hitzaldietan eskolaz hitz egiten zuenean euskal arrazak –etnizat ulertuta- bere hezkuntza behar zuela zioen, indarrean zegoen eskolak ez baitziren Euskal Herriari erantzuten. Eskolak honela izan behar zuten: “Zeuen, zeuen arrazarena, eta zeuen arrazarako. Berria, egungo beharrianetara egokitua” (EI 1919: 930).

Eskola propioaren beharrian hitzaldi bietan islatzen da, teorikoki abiatuta bere esperientzia akademiko eta profesionalek. Alfred Fouillée filosofoa, Pariseko Goi Mailako Normaleko irakaslea izan zena, hartzen du erizpide, eta baita honen ikasle zen Augustin Guyau ere. Azken honengandik “Herentzia eta Hezkuntza” idazlana aipatzen du Mendez de la Torre eta idazle horren pentsaerari jarraituz, berak argi dauka hezkuntzak aurre egin dakiokela herentziaz jasotako determinismoari eta horrela herri batek gizartearen aurrerapenari begira jo dezakeela, atzera jo beharrean. Gutariko banaka bakoitzak osatzen duen kolektibitateari (herriari) eutsi behar zaio eskola bitarte dela eta hori soilik lortuko da hezkuntzak herri baten ezaugarriak lantzen dituen eskolari eusten badio.

Premisa horretatik abiatuta hezkuntza lege bi plazaratzen ditu Kongresuko lehen saioan (EI 1919: 920-921). Lehena: Herri batek bere herritartasunari uko egiten dio bere Lehen Hezkuntzak herri izatea lantzeari ekiten ez badio, edo, herri horrek Lehen Hezkuntza uzten badu ezaugarri hori alda dezakeen baten baten eskuetan. Bigarrena: Herri batek kulturalki ez du lortuko aurrerapen nahikorik, Lehen Hezkuntzak

garatzen ez baditu herri horren indar espiritualak – Fouillée filosofoaren pentsaeran etnia (herri) baten herentzia intelektuala dena-. Lege bi horietan ikusten dugu Mendez de la Torrek Lehen Hezkuntzari ematen dizkion garrantzia eta egitekoa. Hezkuntzari buruzko durkheimdar ikuspegiarekin bat eginik, bere ustez, Lehen Hezkuntzari dagokio belaunaldi berriengan herentzia kulturala barneratzen dela ziurtatzea, herri izaeratasunari eustea nahi bada. Bestalde, herri gisa etorkizunean iraun ahal izateko, ezinbestekoa da Lehen Hezkuntzan herri horren kultura zientifikoa garatzea eta goratzea. Horretaz gain, Bilbon eta Europan ezagutako esperientziak erakutsi zioten hezkuntza udal agintarien eskuetan egonez gero, hezkuntza-arazoei hobeto erantzuten zitzaizela. Hortik dator, Adelinarene udal eskolen aldeko joera eta agintari lokalengan duen itxaropena, eskola zentralistari kritika egiten dion bitartean.

## 5. Ondorioak

Irakaskuntzari dedikatutako ataleko ondorioak jasota daude kongresuaren aktan (EI 1919: 940-947). Atalaren hasieran aldarrikatzen da planteatu den guztiak eraginkortasuna izateko ezinbestekoa dela munizipioek eta Aldundiek euren kargu hartzea eskolaren antolamendua eta ardura. Eskolaren antolaketa teknikoak zein administratiboak herriarenak izan behar dute, estatuaren parte hartze barik. Atalaren gomendioa da aspaldiko ohitura berreskuratzea zeinaren arabera jendeak ondareak edo jarauntsiak uzten zituen irakaskuntzaren hobekuntzarako. Euskal Herriko Batzar Gorena antolatzea aholkatzen dute, pertsona gaituak osatua, irakaskuntza arloan gidari izango dena. Bestalde, familia eta eskolaren arteko lankidetzak “behar-beharrezkoa” dela azaltzen dute eta harreman hori bideratzeko tresnak ondokoak direla diote: hilero ikusten den koadernoak, bertan irakasleak jasoko duela gurasoek ezagutu beharreko umeari buruzko informazioa eta, alderantziz, gurasoek irakasleari emango diotenak. Era berean, ikaslearen osasun txartela zein eskolara duen asistentziakoa ere erabiltzekoak dira.

Irakaskuntzaren autonomia lortu artean irakasleen azterketak probintzian egingo direla adosten da kongresuaren aktan eta Aldundiei eskatzen zaie sariak ezartzeko eta irakasleak saritzeko kongresoko orientabideak erabiltzearen. Era berean, irakasleen joan-etorria eteteko eskatzen da eta udalei, Aldundiei edo dagokionari behar diren bitartekoak ezartzeko.

Bestalde, Euskal Herriko Geografia eta Historia irakastea ezinbestekotzat aldarrikatzen da, Aldundiei eskatuz euren menpeko eskoletan gai horrek derrigorrez erreferentzia behar duela izan. Aldundiei irakasteko agindua emateko proposamena egiten da. Autonomia lortu bitartean, estatuari eskaria egiteko ere eskatzen da, institutu teknikoetan eta, batez ere, Eskola Normaletan, irakatsi ahal izateko. Hauxe jaso zuen Euskal Herriaren Alde Aldizkariak, “Para que la escuela cumpla sus funciones instructivas y educativas, deben

intangiblemente concurrir en los maestros que laboren en aquél, condiciones de naturaleza, posesión de idioma y conocimiento del País, precisándose para ello la facultad de los municipios para el nombramiento de sus maestros...” (EA, 1918:191). Maisu-maistrek eskolan garatu behar dituzten edukien artean soinketak trataera berezia du. Herri kulturalan uzartzeko egoki ikusten da “soin-azkuntzari dagozkion ardura ta begirakun osoak eman bea’r dirala” (EI, 1919: 943) herri dantzekin bateratuko direnak, horretarako kirol lekuak ezartzeko eskatzen da.

Euskal Herriko eskola guztietan euskara erabiliko da, “berebiziko legez”. “Batzar honek erabaki du umearen irakaskuntza, edo argiago esateko, umearen irakaste eta azkintza osoa ume berak ezagun duan elez eman bea’r zazkiola” (EI, 1919: 944). Honen harira aipatzen da ikastetxe batzuetan “euzkera bazte’rtzeko eraztun lotsagaría erabili oi dala” (EI, 1919: 946), eta kongresuari berari eskatzen zaio hartzeko ahalik arinen, egoera “lotsagarri” hori amaitzeko neurriak.

Horretaz gainera Alberto Achica-Allende jaunak emakumeei bideratutako “Euzko-eskaratz-ikastola” gaiaz aurkeztutako txostena aipatzeaz batera (EA, 1918: 946), txosten hori bere egiten du kongresuko atal honek eta emakumeentzako egokia izan daitekeen irakaskuntza antolatzekeo neurriak hartzea erabakitzen da. Horretarako, emakumeen biltzarra antolatuko da, emakumeentzako eskolaren martxaz ardura hartuko duena.

Azpimarragarriak dira beste bi ondorio: batak Bizkaiko Auzo-Ikastolak eraikitzea ekarriko duena eta besteak testuliburuak sortzea. Horrela, Euskal Herriko Aldundi eta udalei aholkatzen zaie eraikitzekeo urruneko auzoetan maistra euskaldunak zuzenduko dituzten eskolak. Auzo horietako ume guztiak euskal elebakarrak diren heinean hizkuntza horretan behar dute eskolaratzea. Testuliburu zein eskola-materialak euskaraz sortzekeo bide naturaltzat jotzen dute sariak antolatzea, zeintzuetan arau motibatzaileak ezarriko diren, ahalik eta egile gehien aurkeztekeo moduan.

Amaieran, eskatzen da “Gonikastola (sic) ezartzeko bide guztiak a’rtu ditzala, asmo or’en au’rerakundea irasgai dan Euzko-Ikaste-Bazkunari aolkaturik” (EI 1919: 947), goi mailako ikasketen aldarrikapena egiten da, unibertsitatea ezartzeko bideak zabaltzekeo eskatuz. Horretan arduratuko dena izan daiteke Eusko-Ikaskuntza.

Oñatiko kongresuan irakaskuntzaren atalari berebiziko garrantzia eman ziotela aipatzen dute batean eta bestean, aktetan ere horrela ikus daiteke, atal honi eman baitiote orrialderik gehien. Elorza jaunak kongresuari hasiera eman zionean esandakoarekin amaitu gura genuke, kongresu hartako laburpen moduan. “Gure hizkuntza gorde nahi badugu, gure ohiturak gorde nahi baditugu eta nahi izanez gero, hitz batean, Vasconia salbatu, lan egin beharko dugu irakaskuntza gurea izan dadin, irakasleak gureak izan daitezen, udalek aukeratu ditzaten; irakaskuntza

gizartearen funtzioa delako eta honek alboratzen duen kasuan bakarrik, estatuarena” (EI 1919: 865).

## 6. Aipamenak

- B., C. de (Baraibar, Carlos de) (1918). “Lo que se ha dicho en Oñate”, *Hermes* 24: 117-127.
- Bilbao Bilbao, B., Perez Urraza, K. (2008). Euskal curriculum lehena eta orain, *Ikastaria, Cuadernos de Educación* 16: 83-108.
- Bilbao Bilbao, B., Ezkurdi Arteaga, G., Pérez Urraza, K. (2011). “Las influencias pedagógicas de las maestras y los maestros en el Bilbao de comienzos del s. XX”, In: Pablo Celada Perandones (ed.) (coord.): *Arte y oficio de enseñar: dos siglos de perspectiva histórica*, Vol. 1 (XVI Coloquio Nacional de Historia de la Educación), Soria: El Burgo de Osma (305-314 orr.).
- Estornés Zubizarreta, I. (1983). *La sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la Cultura Vasca (1918-1936)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Euskalerrriaren Alde (EA) (1918). *El Primer Congreso de Estudios Vascos*. San Sebastián: Martín, Mena y Cía.
- Eusko Ikaskuntza (d/g). *Eusko Ikaskuntza Asmoz eta jakitez* web gunea. <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/es/>.
- Eusko Ikaskuntza (EI) (1919). *I Congreso de Estudios Vascos*. Recopilación de los trabajos de dicha asamblea, celebrada en la Universidad de Oñate del 1 al 8 de Septiembre de 1918, bajo el patrocinio de las Diputaciones Vascas. Bilbao: Bilbaina de Artes Gráficas.
- Landeta Aburto, E. (1919). “Estado actual de la Escuela en el País Vasco”. In: Eusko Ikaskuntza. *I Congreso de Estudios Vascos*. Bilbao: Eusko Ikaskuntza, (875-901 orr.).
- Torrealdai, J. M. (1997). *Euskal Kultura gaur*, Nafarra: Jakin.

Oharra.- Egileak UPV/EHUko GARAIAN ikertalde egonkortuko kideak dira, eta artikulua IT 911-16 Ikerketa-proiektuan, eta “Hezkuntza, Kultura eta Gizartea” izeneko UFI 11/54an kokatzen da.